

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Puntu bakar batean elkartzen diren ertzak.
Sharon Stoner.
Autoekoizpena.
Iraupena: 47'32". 10 euro.

Stoner ertz bat duen power-trio borobila

OÑATIKO HIRUKOTEA bueltan da lan berriarekin; beraien ibilbideko hirugarren lan luzea. Maketan stoner pisutsua lantzen hasi baziren ere, berehala azaldu zuten soinu berezi horretatik erabat aldendu gabe, askoz irekiagoak direla. Eta ez hori bakarrik, power-trio formula nahikoa eta gehiago izan daitekeela erakusten dute lan landu eta zuzeneko bortitz bakoitzean. Iban Yaniz lagunarekin Oñatin bertan beraien kabuz grabatu duten disko

honetan bost minutu inguruko kantak batu dituzte, giroa, erritmo aldaketak, indarra eta irudimena barra-barra dituztenak. Garapen handiko abestiak dira, baina tarte oso melodikoak ere badituztenak; eta ahotsak, oraingoan ere, distira berezia du. Ondo gordetako altxorra da, gezurra badirudi ere oraindik jende askok ezagutzen ez duena.

www.sharonstoner.com

Iñigo Ibarondo - Sharon Stoner

«Gure ustez abesti 'normalagoak' sartu ditugu, estruktura konbentzionalagoekin»

Puntu bakar batean elkartzen diren ertzak. Zer da zuentzat gaur egun taldea?

Taldea musika sortu eta jotzeko dugun beharra asetzeko bideetako bat da. Aspaldidanik ezagutzen diren hiru lagun-min elkartzen dituen puntua, anaitzen gaituena.

Nire ustez orain arteko disko melodiko eta aldi berean arriskatuena egin duzue.

Ez dugu horrela ikusten. Aurreko bi diskoetan bezala lan egin dugu, melodiari garrantzia berdina emanez. Lelodun abestiak gustatzen zaizkigu. Abesti gehienek bost minututik gora badute ere, gure ustez abesti "normalagoak" sartu ditugu, estruktura konbentzionalagoekin.

Zer esanahi dauka zuentzat stonerak gaur egun?

Ez diogu uko egiten stonerrari, baina izenean badaramagu ere, stoner rock talde bat baino gehiago



gara. Gure eragin nagsusienetakoa da, baina musika mota asko entzuten dugu eta taldea horren guztia- ren emaitza da.

Nolako esperientzia izan da diskoa zuen kabuz grabatzea?

Ibanek egin duen lehen disko luzea izanik, emaitza borobila da. Esperientzia guztiz aberasgarria izan da, errepikatzeke modukoa. Guk egiteak abestien beste perspektiba bat eman digu eta etxe ondoan grabatzeak erosotasuna.

Iñigo, disko honetan ahotsa gehiago landu duzu?

Ez dugu ezer berezirik egin: lokalean abestien hezur musikala egin, ahotsak konposatu, abestiak entseatu eta grabatzera sartu aurretik bakoitzak abestien konponketak egin ditu.

"Benetazko gizakien heriotzak sortutako engainuzko hilobiak". Arantzazuko piramide-dorreez ari zarete? Inguruko gauza eta esperientziek inspiratzen zaituztete edo Bosforora joaten zarete mentalki?

Inguruko istorioak aurkezteko erabiltzen ditugun egoera edo tokiak dira. Metaforak edo urrun gelditzen zaizkigun toki edo pertsonak erabil ditzakegu. Agian etorkizunean aipatuko ditugu Arantzazuko dorreak edo Araotzeko baso berdeak gure abestietan, nork daki. ■

